



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 8a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Ororbiako Kontzejuaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ororbiako Kontzejuaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Ororbiako Kontzejuaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Ororbiako Kontzejuaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Iritzia (5. or.).
 - II.1. 2015eko kontu orokorrari buruzko auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).
 - II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (6. or.).
- III.** Ororbiako Kontzejuaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (7. or.).
 - III.1. 2015eko aurrekontuaren betetzeari buruzko egoeraorria (7. or.).
 - III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta (8. or.).
 - III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (8. or.).
 - III.4. 2015eko abenduaren 31ko egoeraren balantzea (9. or.).
 - III.5. 2015eko emaitza ekonomikoaren kontua (9. or.).
- IV.** Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (10. or.).
 - IV.1. Ororbiako Kontzejuaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (10. or.).
 - IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak (12. or.).
 - IV.3. Bestelako kudeaketa-arloak (13. or.).
 - IV.4. Gomendioak (16. or.).

I. SARRERA

Ororbiako Kontzejuaren Batzarrak, 2015eko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea azken 12 urteetako kontu orokorreari buruzko fiskalizazio txosten bat egiteko.

Eskaera hori betetze aldera, Kontuen Ganberaren 2016rako urteko fiskalizazio-programan sartu zen lan hori egitea, baina hura itxitako azken ekitaldiko kontu orokorrera mugatu zuen.

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Ororbiako Kontzejuaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Kontu hori, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina, balantzea eta emaiza ekonomiko eta ondarezkoei emaitzen kontua.

Kontu orokorraren finantza-auditoriarekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Ororbiako Kontzejuak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Ororbiako Kontzejuari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako, Kontzejuak 273/1998 Foru Dekretuan araututako araubide sinplifikatua aplikatzen du, programa informatiko baten bitartez.

Ororbiako Kontzejua Oltza Zendeako Udalaren bederatzi kontzejuetako bat da. 4,68 Km²-ko azalera du eta 766 biztanle zituen 2015ko urtarrilaren 1ean. Udalaren guztizkoan, Kontzejuak lurraldearen ehuneko 11 eta biztanleriaren ehuneko 42 hartzen ditu.

Kontzejuak ez du tresna izaerako enterik, eta haren datu ekonomiko eta langileei buruzko datu garrantzitsuenak honako hauek ziren 2015eko ekitaldiaren itxieran:

Ororbiako Kontzejua	Zenbatekoa
Aitortutako eskubideak	285.056
Aitortutako betebeharrak	199.705
Lanaldi partzialeko langileen kopurua	2

Lankidetzeta-hitzarmen baten bidez, 1996an, aholkulari juridiko bat kontratatu zen Zendeako kontzeju guztietarako. Aholkulariak, gainera, kudeaketa administratiboko eta kontabilitateko eta jendeari arreta emateko zerbitzuak ematen ditu. Hiru hiru egunez egiten du lan Aratzuriko Kontzejuan eta bi egunez Ororbiakoan, lanaldi osoan. Haren lansariak Aratzuriko Kontzejuak ordaintzen ditu, baina haren kostuaren ehuneko 50 Zendeako Udalak eta beste ehuneko 50a kontzejuak ordaintzen dute, biztanle-kopuruaren arabera.

Kontzejuaren **egitura organikoa** honako hau da: kontzejuburu bat eta batzar bat, non kontzejuburu eta hiru kontzejukide baitaude. 6/1990 Foru Legeari jarraituz, kontzejuburuak alkate bati esleitzen zaizkion eskumen berak dauzka; Kontzejuko Batzarrak, berriz, honako hauek dauzka:

- Kontzejuburuaren ekintzak kontrolatu eta haien fiskalizazioa egitea.
- Aurrekontuak eta ordenantzak onestea, kontuen zentsura egitea, eta kredituak aitortzea, aurrekontu-zuzkidurarik ez badago.
- Ondarea administratu eta kontserbatzea eta herri-lurren aprobetxamendua erregulatzea.
- Ekintza judizial eta administratiboak aurrera eramatea.
- Ondasunen xedapenari, kreditu-eragiketei eta nahitaezko desjabetzeari buruzko erabakiak hartzea, bai eta legeak, udalei dagokienez, udalaren osoko bilkurari esleitzen dizkion gainerako eskudantziak ere.

Halaber, kontzejukideetako bat kontzejuko idazkari izendatzen da eta bestea, berriz, diruzain.

Ororbiako Kontzejuak betetzen dituen **eskumenak**, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen arabera, honela laburbil daitezke:

- Bere ondarearen eta herri-ondasunen administrazioa eta kontserbazioa.
- Herri-bideen mantentzea.
- Hirigintza-lizentziak ematea, Udalak aginduzkoa den aldez aurretiko txosten loteslea emanda.
- Kale garbiketa
- Argiteria publikoa
- Hilerria
- Bertako festak
- Kontzejuaren artxiboa

Araudiak, halaber, aurreikusten du Kontzejuak berez kontzejuarenak diren eskumenak Udalari eskuordetzea. Hartara, Ororbiako Kontzejuak Udalari doan laga dio Udalari Kontzejuaren pilota-lekuaren kudeaketa.

Finantzaketari dagokionez, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak aipatzen du kontzejuek honako hauek izanen dituztela:

- Udalek bezalako baliabide ez-tributarioak izanen dituzte, urbanizazio kuotak ezik.
- Ez dute zilegi izanen tasak eta kontribuzio bereziak beste tributurik ordainaraztea.
- Foru Komunitatearen eta estatuaren zergen partaidetza izanen du.
- Ondaretik eratorritako baliabideak.
- Diru-laguntzak.
- Zorpetzea.

2015eko aurrekontua 2015eko abenduaren 22an onetsi zuen Kontzejuaren Batzarrek.

Ez da auditoriarik egin Kontzejuaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrari buruz. Ekitaldi horri buruzko informazioa, txosten honetan jasotakoa, informazio-hutsez ematen da.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrean, gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa ematen dugu, Kontzejuaren 2015eko kontu orokorrari dagokienez; hirugarren atalean kontabilitateko egoera-orri nagusiak laburbiltzen dira. Laugarrean, Kontzejuaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko oharrak eta ondorioak jaso ditugu, bai eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzkoak eta bestelako kudeaketa-arlo garrantzitsuei buruzkoak ere, Kontzejuaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioekin batera.

Jarduketa honen emaitzak egungo kontzejuburuari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015eko ekainera arte kargu horretan aritutakoari ere, nahi izanez gero egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 14 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, ez dute alegaziorik aurkeztu.

Ororbiako Kontzejuko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

II. IRITZIA

Ororbiako Kontzejuaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

KONTZEJUAREN ERANTZUKIZUNA

Idazkaria den Kontzejuaren Batzarreko kidea da kontu orokorra formulatzeko eta aurkezteko ardura duena, eta halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Ororbiako Kontzejuaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

2015eko kontu orokorra 2016ko abuztuaren 4an onetsi zuen Kontzejuaren Batzarrak.

Kontzejuak, kontu orokorra egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2015eko kontu orokorrari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko kontu orokorrean adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorrean akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, bai akats hori iruzurraren nahiz oker baten ondoriozkoa denean, bai legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorra egin dezan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua da hori— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorraren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriako eta legezkotasunaren betetzearen fiskalizazioko gure iritziari eusteko.

II.1. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

IRITZI FINANTZARIOAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

a) Kontzejuak ez du behar bezala identifikatu eta balioetsitako ondasunen inbentariarik; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu 1,91 milioitan zenbatetsitako egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna.

b) Ez du zorroztasunik aplikatzen diru-sarrerak eta gastuak aurrekontuaren likidazioari egoztearen ondoriozko sortzapen-irizpidea. Hartara, ikusten dugu diru-sarrerak kutxako irizpidearen arabera kontabilizatzen direla; gastuetan, berriz, detektatu dugu 2014ko gastu batzuk badaudela 2015ean erregistratu direnak —20.000 euro inguru— eta 2015eko gastu batzuk 2016ko aurrekontuari egotzi zaizkiola —6.000 euro inguru—.

AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritzian, "Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadako a) letran azaldutako norainokoaren mugaketarengatik eta b) letran azaldutako egitatearengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, Ororbiako Kontzejuaren ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Ororbiako Kontzejuaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako jarduketak, aurrekontu-eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

III. ORORBIAKO KONTZEJUAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**III.1. 2015eko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO EGOERA ORRIA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak
1. Langile-gastuak	17.000	0	17.000	16.647	98	16.647
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	173.600	0	173.600	130.349	75	129.547
4. Transferentzia arruntak	4.500	0	4.500	4.088	91	4.088
6. Inbertsio errealak	58.000	0	58.000	48.622	84	48.437
Guztira	253.100	0	253.100	199.705	79	198.719

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	153.200	0	153.200	182.479	119	182.479
4. Transferentzia arruntak	59.000	0	59.000	60.652	103	60.652
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta he- rri-aprobetxamenduak	40.900	0	40.900	41.924	103	41.924
Guztira	253.100	0	253.100	285.056	113	285.056

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	234.624	285.056
- Aitortutako betebeharrak	409.844	199.705
Aurrekontu-emaiza	-175.221	85.350
Doikuntzak	0	0
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
+ Merkataritzako eragiketen emaitza	0	0
Aurrekontu-emaiza doitua	-175.221	85.350

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	0	0
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	0	0
(-) Bilketa zaileko eskubideak	0	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.492	1.100
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	624	987
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	868	113
(+) Diruzaintzako funts likidoak	48.778	133.737
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	47.287	132.637
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	47.287	132.637

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A Ibilgetua	1.877.782	1.911.796
1 Ibilgetu materiala	249.844	252.606
2 Ibilgetu ez-materiala	3.739	7.127
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	1.411.169	1.436.575
4 Herri-ondasunak	213.029	215.487
C Zirkulatzaila	48.778	133.737
8 Zordunak	0	0
9 Finantza-kontuak	48.778	133.737
Aktiboa, guztira	1.926.560	2.045.532

Garbia eta pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A Funts berekiak	1.925.069	2.044.433
1 Ondarea eta erresebak	1.914.334	1.910.460
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	10.734	133.972
C Epe luzeko zorrak	0	0
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	0	0
D Epe laburreko zorrak	1.492	1.100
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	867	113
6 Aurrekontuko hartzekodunak	624	987
Garbia eta pasiboa, guztira	1.926.560	2.045.532

III.5. 2015eko EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Zor	2014	2015	Hartzeko	2014	2015
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	16.488	16.647	70 Salmentak	133.245	182.479
62 Finantza-gastuak	0	0	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	4.621	41.924
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	176.800	130.349	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
67 Transferentzia arruntak	1.666	4.088	73 Ohiko zergak	0	0
68 Kapital-transferentziak	0	0	76 Transferentzia arruntak	67.823	60.652
69 Kalkulatutako gastuak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
D80 Ekitaldiko emaitza negatibo arrunta	0	0	H80 Ekitaldiko emaitza arrunta.	10.734	133.972
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak	0	0	H82 Inbertsioen besterentzearengatiko irabaziak	0	0
D83 Finantza aktiboen salmentaren galerak	0	0	H83 Finantza aktiboen salmentaren irabaziak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	0	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	0	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa negatiboa	0	0	H89 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa positiboa	10.734	133.972

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar, iruzkin eta gomendio batzuk gehitu ditugu, azaldutako iritzian eraginik ez dutenak, bai eta Ganbera honen ustez txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

IV.1. ORORBIAKO KONTZEJUAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

2015erako gastuen eta diru-sarreraren hasierako kredituak 253.100 eurokoak dira. Kreditu horietan ez da aurrekontu-aldaketarik izan.

Aitortutako betebeharrak 199.705 euro egiten dute, ehuneko 79ko betetze-mailarekin eta ehuneko 99,5eko ordainketa-ehunekoarekin. Gastu horien ehuneko 76 izaera arruntekoak dira. Kapitulu guztiek batez bestekoaren gainetik dagoen betetze-maila dute, ondasun arruntena eta zerbitzuak izan ezik; izan ere, haren betetzea ehuneko 75ekoa da.

Gastu arrunten barruan, nabarmentzekoa da Kontzejuko jaietara bideratutako zenbatekoa, ia 50.000 eurokoa; hau da, guztizko gastuaren ehuneko 25. Halaber, argiteria publikoa eta haren mantentzea aipatu behar ditugu, 36.206 euro baitira —guztizko gastuaren ehuneko 18—, eta langile-gastuak, 16.647 eurokoak —guztizko gastuaren ehuneko zortzi—. Inbertsioetan, 48.622 euroko guztizko gastuarekin, nabarmentzekoak dira ureztatzerako ubideko obretarako bideratutakoak eta baso-lanetakoak —24.640 eta 15.429 euro egiten dute, hurrenez hurren—.

Bestalde, aitortutako eskubideek 285.055 euro egiten dute, ehuneko 113ko betetze-mailarekin eta ehuneko 100eko kobrantza-ehunekoarekin. Horri dagokionez, zehaztu beharra dago diru-sarrerara horiek kontabilizatzerakoan kutxako irizpidea erabiltzen dela. Kapitulu guztiek ehuneko 100etik gorako betetze-maila dute. Nabarmentzekoak dira tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, ehuneko 119ko portzentajearekin.

Beren izaerari erreparatuta, diru-sarrera ia guztiak arruntak dira. Nabarmentzekoak dira elektrizitate-konpainiek lurgaina, zorua eta lurpea okupatzeagatiko tasetatik heldu direnak, zeinek 178.027 euro egin baitute, hau da, ekitaldiko diru-sarrera guztien ehuneko 62; nabarmentzekoak dira, halaber, herri-lurretatik —16.486 euro— eta zuhaitzen salmentatik —23.633 euro— heldutakoak. Toki Ogasunen Funtsetik 46.456 euro jaso dira guztira, eta Zendeako Udaletik, berriz, 11.543 euro, gastu arrunta finantzatzeko.

Laburbilduz, Kontzejuak 2015ean gastatutako 100 euro bakoitza honako hauekin erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	2015	Finantzabidea	2015
Langileak	8	Tasak, prezioak eta bestelakoak	64
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	66	Transferentzia arruntak	21
Transferentzia arruntak	2	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	15
Inbertsioak	24	Finantza-pasiboak	0
Finantza-zama	0		
	100		100

2015eko ekitaldirako aurrekontuaren betetzeak eta betetze horren aurreko ekitaldikoarekiko alderaketak honako magnitude eta adierazleak ematen dituzte:

Adierazleak	2014	2015	15/14 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak	409.844	199.705	-51
Likidatutako eskubideak	234.624	285.056	21
Ordainketen betetzea (%)	100	99	
Kobrانتzen betetzea (%)	100	100	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	194.954	151.083	-23
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	194.954	151.083	-23
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	214.890	48.622	-77
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	205.689	285.056	39
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3ra)	133.245	182.479	37
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	28.935	0	-100
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	29	21	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	65	64	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-175.221	85.350	149
Aurrekontu-emaizta doituak	-175.221	85.350	149
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	47.287	132.637	180
Aurrezki gordina	10.734	133.972	1148
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	0	0	
Aurrezki garbia	10.734	133.972	1148
Zorpetze-maila (%)	0	0	
Zorpetze-muga (%)	5	47	
Zorpetze-ahalmena (%)	5	47	
Zor bizia	0	0	

Aurreko datuen azterketatik, honakoa azpimarratzen dugu:

- 2015eko gastuak ehuneko 51 jaitsi dira; hau da, 210.139 euro. Jaitsiera hori justifikatzen da, funtsean, inbertsioek behera egin dutelako —166.268 euro— eta gastu arruntan eta zerbitzuen gastuak ere behera egin duelako —46.451 euro—.

- 2015eko diru-sarrerak ehuneko 21 egin dute gora, hau da, 50.432 euro; igoera hori heldu da, funtsean, elektrizitate konpainiek okupazioagatik ordaindutako tasetatik —48.301 euro— eta zuhaitzen salmentatik eta herri-lurren aprobetxamendutik —37.799 euro—. Halaber, aipatu behar dugu 2015ean kontzejuak ez duela kapital-transferentziarik jaso.

- 2015ean, kontzejuak balio positiboak dauzka aurrekontu-saldo ez-finantzarioan eta aurrekontu-emaizta doituak, 2014an magnitude horietan lortutako balioak nabarmen hobetu baititu. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago 2014ko aurrekontu-emaiztak ez zuela jaso diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako inbertsioengatik aginduzkoa den doikuntza.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak ehuneko 180 egin du gora 2014koarekin alderatuta, eta 132.637 euroko kopurura iritsi da.

- Halaber, 2015ean, nabarmen hobetu dira aurrezki gordinaren eta garbiaren balioak, zeinak bat baitatoz, finantza-zamarik ez dagoelako.

- Bi ekitaldietako bakarrean ere ez du zorpetzerik.

Azken batez, Ororbiako Kontzejuak finantza-egoera saneatua dauka, funtsean diru-sarrera bereki garrantzitsuak dituelako, elektrizitate-konpainiek ordaindutako okupazio-tasek eta herri-lurren ustiaketak sortuak, eta diruzaintza-gerakinean saldo positibo garrantzitsu bat baduelako.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIBIOAK

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Kontzejuak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalerako terminoetan neurtua.
- Gastu-araua, hau da, Kontzejuak 2014koarekin alderatuta gastu zenbakarrian dagoen aldeak ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,3an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Kontzejuaren zorrak, kontabilitate nazionalerako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarreraren arruntaren ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Kontzejuaren 2015eko kontu orokorrean ez da aipamenik egiten helburu horiek betetzeari buruz, eta ez da informaziorik ematen betetze-mailari buruz.

Hala eta guztiz ere, Kontzejuaren egoerari buruzko zenbatespen bat egin dugu, 2015erako, printzipio horiei dagokienez. Horren arabera, honako ondorioak atera ditugu:

OREKA/FINANTZAKETA-AHALMENA KONTABILITATE NAZIONALEKO TERMINOETAN.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa abiapuntutzat hartuta (diru-sarreraren 1. kapitulutik 7. kapitulura bitartekoak ken gastuen 1. kapitulutik 7. kapitulura bitartekoak) eta kontuan hartuta Kontzejuak kutxa-irizpidea erabiltzen duela diru-sarreraren kontabilitatean, ez da bidezkoa ekitaldi korronteko aitortutako tributu-eskubideen eta itxitako ekitaldikoen arteko aldetik heldu den doikuntza egitea; eta ezin dira aplikatu, ezta ere, kasuko araudian aipatzen diren gainerako doikuntzak.

Horrenbestez, Kontzejuak 2015ean 85.350 euroan zenbatetsitako finantzaketa lortu du, honako taula honetan erakusten den bezala:

Kontzeptua	2015
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	85.350
Kontabilitate nazionalerako doikuntzak	0
Finantzaketa-ahalmena	85.350

Horrenbestez, Kontzejuak 2015ean bere kontuak superabitarekin edo finantza-gaitasunarekin —kontabilitate nazionalerako terminoetan— amaitzeko helburua bete du.

GASTUAREN ARAUA

Gure zenbatespenak oinarri, eta soilik 2015eko aurrekontu-likidazioan zentratuta, hurrengo taulan erakusten ditugu egindako kalkuluak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
a. 2014ko gastu zenbakarria	380.909
b. 2015eko gehieneko gastu zenbakarria (a-ren ehuneko 101,3)	385.861
c. 2015ean exekutatu den gastu zenbakarria	199.705
b-c aldea	186.156

Horrenbestez, Kontzejuak gastu-arauaren arlorako legez ezarritakoak bete egin ditu.

ZOR PUBLIKOAREN IRAUNKORTASUNA

Kontzejuak zorpetzerik ez duenez, finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete du.

MERKATARITZA-ZORRAREN IRAUNKORTASUNA

2015ean, Kontzejuak ez du fakturen erregistroa ezarri. Erregistro hori ezinbestekoa da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatu ahal izateko. Horrenbestez, ezin dugu esan aztertutako ekitaldian Kontzejuak araudi indardunean ezarritako epeak bete dituen ala ez.

Hala eta guztiz ere, esan beharra daukagu aipatutako ekitaldiko gastuen ehuneko 99,50 haren amaieran ordainduta zeudela, eta kontabilitate-erregistroetan ez dagoela jasota hornitzaileei egin beharreko ordainketetan atzeratzeagatiko berandutza-interesetatik heldutako gasturik.

IV.3. BESTELAKO KUDEAKETA-ARLOAK*ALDERDI OROKORRAK*

- Kontzejuaren Batzarrak 2015erako aurrekontua urte horretako abenduan onetsi zuen. Hala-ber, 2014ko aurrekontua urte bereko abenduan onetsi zen.
- Ez dago berariaz arauturik Kontzejuaren Batzarraren bileretan aholkulari juridikoa egotea, kasuko aktak idazteko garaian hari aholku emateko.
- Ez dago jasota Kontzejuaren ondasunak behar bezala identifikaturik eta balioetsirik duen inbentariarik dagoenik.

LANGILE-GASTUAK

- Kontzejuak ez 2015ean, ez lehenagoko urteetan ez du langileen plantilla organikorik onetsi.
- 2015ean zehar, sei pertsonak egin dute lan lanaldi partzialean; 2015eko abenduaren 31n, berriz, bi langilek egin dute lan, harreman mugagabearekin, Kontzejuaren eraikina garbitzen —asteen 9 orduz— eta beste bat aldi baterako kontratu batekin kaleak garbitzen —asteen 15 orduz—.

Eraikina garbitzen duen pertsona 2016ko maiatzetik kontratatu zen sei hilabeteko kontratuekin; 2007ko maiatzean, aldi baterako harreman hori kontratu mugagabe bihurtu zen.

Bide-garbitzarako, kontratazioa baldintza sozial jakin batzuk betetzen zituzten kontzejuko bi-zilagunen arteko zozketa baten bidez egiten zen, txandaka, sei hilabeteko kontratuekin; hala eta guztiz ere, 2015eko ekainetik gaur arte pertsona bera egon da kontratatuta lan-modalitate desberdinekin.

2015eko bigarren seihilekotik, bi lanpostu horiek lanaldi osoko lanpostu bakar bihurtzeko aukera aztertzen ari da.

- 2015ean, lan-kontratu guztiei alta eman zaie Gizarte Segurantzari.
- 2015ean iraupen luzeena izan duten hiru lan-kontraturen nominak berrikusi dira: haien lan-sariak Kontzejuak ekitaldi horretan lansarietan ordaindutako guztiaren ehuneko 86 egiten du. Azterketa horretatik eta lanaren arloko gainerako auditoria probetatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, langile-gastuek euskarri zuzena dutela eta zuzen kontabilizatu eta ordaindu direla. Hala eta guztiz ere, gure ustez langile mugagabeari, garbiketaren arloko hitzarmena aplikatuz, hartan jasotako antzinasun-ordainsaria aplikatu beharko litzaioke; horrek berekin ekarriko luke, esku-bide dituen bi hiru-tekoak direla-eta, ordainsariak urtean 289 euro handitzea.

DIRU-LAGUNTZA ARRUNTETAKO GASTUAK

- Kirol-jardueretarako 3.206 euroko diru-laguntzen ematea aztertu dugu, kapitulu horretako ehuneko 78 baitira. Ikusi dugu deialdi publikorik ez dagoela eta, oro har, laguntza-eskaera, haren

helburua edo haren xedea eta haren formalizatzea ez daudela agiri bidez jasota, ez eta diruz la-gundutako gastuaren izaera ere.

GASTU ARRUNTAK ETA INBERTSIOAK

2. kapituluko eta 6. kapituluko gastuen lagin bat aztertu dugu: kapitulu horietako guztizko gas-tuaren ehuneko 70 egiten dute. Azterketa horretatik, honakoa adierazi behar dugu:

- Kontzejuaren aholkularien gastuengatik kontabilizatutako zenbatekoa, 5.615 euro, behar dena baino 3.817 euro gutxiago balioetsita dago; zenbateko hori 2016ko aurrekontuari egozten zaio, eta ekitaldiaren amaierako likidazioari dagokio. Bestalde, gastu hori gastu arrunten eta zer-bitzuen 2. kapituluan erregistratzen da, nahiz eta bere izaera ekonomikoa dela-eta —Aratzuriko Kontzejuari egindako transferentzia— egokiagoa litzatekeen transferentzia arrunten 4. kapitulari egozte.

- Oro har, aztertutako gastuek ez dituzte gainditzen kontratazio-espeditenteen formalizazio-rako araututako zenbatekoen mugak; horrenbestez, aholkulariak fakturak aurkeztu besterik ez du egiten. Legez nahitaezkoa ez den arren, oro har, ez dago jasota aurretik eskaintzarik eta aurre-konturik eskatu izana.

- Aurkeztutako fakturek ez dute beti jasotzen egindako lanei, prezio bateratuei eta erabilitako materialei buruzko informazio xeherik. Emate-agiririk edo lan-parterik ere ez da eransten.

- Gastua ez zaio zorrotz aplikatzen sortu den ekitaldiari: 2015eko ekitaldiari egotzitako 2014ko gastuak aurkitu ditugu, bai eta 2016ko ekitaldiari egotzitako 2015eko ekitaldiko gastuak ere.

- Argiteria publikoa. Argiteria publikorako erabilitako energia elektrikoaren kontsumoari dago-kion gastua 27.058 eurokoa izan da 2015ean. Gastu horren garrantzi kuantitatiboa dela eta, 2014an, Kontzejuak azterlan tekniko bat enkargatu zuen kontsumo horren arrazoizkotasuna eta aurrezki-neurriak hartzeko aukerak aztertzeko; enkargu horren emaitza izan zen, bestak beste, 2015ean merkaturatze-enpresa aldatzea, urtean 1.287 euroko aurrezkoa kalkulatuta. Enpresa-aldaketa 2015eko otsaileko eta martxoko fakturretan gauzatu zen hileroko fakturaziorako, eta 2015eko apirilean, berriz, bi hilez behingo fakturaziorako.

2015eko gastua 2014koa baino ehuneko zazpi txikiagoa izan da; hau da, 1.890 euro txikiagoa. Hala eta guztiz ere, hileko kontagailuetako azken hilabeteko fakturak erregistratzeko geratu dira, eta 2016ko aurrekontuari egotzi zaizkio.

Bestalde, argiteria publikoaren mantentze-kontratua 1987ko urrian sinatu zen; horrenbestez, zabal gainditu da izaera horretako kontratuen gehieneko indarraldia; 2015ean, 1.839 euroko gas-tua ekarri du. Gainera, enpresa horrek guztira 7.309 euro fakturatu ditu lanparak aldatzeagatik eta bestelako lanengatik, eta horrekin soilik fakturak aurkeztuz egindako kontratazioaren izapide-tzerako ezarritako muga gainditu da.

- Herriko jaiak. 2015ean, 49.914 euroko gastua egin da, aurreko ekitaldikoa baino ehuneko bost txikiagoa, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Herriko jaiak	2014	2015
Abuztuko jaiak	47.217	43.775
Donibane jaia	0	360
Erromeriak	290	364
Jai txikiak	4.976	5.415
Guztira	52.483	49.914

Gastuaren zatirik handiena kontzertuei eta ikuskizunei dagokie.

Kontzertuetarako ez da kontratazio-prozedura formalik erabiltzen, eta ikusten da horietako ba-tek kontratazio-espeditente bat izapidetzeko mugak gainditzen dituela; guztiak kontratuen bidez bermatuta daude, eta kontratu horiek gero aurkeztutako fakturarekin alderatzen dira.

- Baso-lanak, 15.429 euroko gastuarekin. Gastu hauek dagozkien fakturretan bermatuta daude —hiru enpresek eginak—, baina enkargatutako lanak edo aurrekontuak jaso gabe daude.

Halaber, ikusten dugu horrelako lanei aplikatzekoa zaien ehuneko 10eko BEZ tasa murriztua ez dela beti aplikatzen.

- Ureztatzeko ubidearen obrak. Eraikuntza-proiektu bat dago jasota, non obra horiek 13.851 euroko balioa edo aurrekontua dutela esaten baita. Kontu-sail horri egotzitako guztizko gastua 24.640 eurokoa da; horietatik, 3.630 euro proiektuaren idazketari dagozkio eta 21.010 euro, berriz, bost enpresak edo/eta profesionalak egindako lanei.

AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

- Kontabilitate-irizpide gisa, diru-sarrerak beraien kobrantza efektiboaren arabera erregistratzen dira.

- Zorua, lurpea eta lurgaina okupatzeagatik elektrizitate-konpainiek ordaindutako tasa Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak kudeatzen eta komunikatzen du. Kontzejuak haren kobratza erregistratu besterik ez du egiten.

- Kontzejuaren 2015eko gastu arruntak finantzatzeko Udalak Zendeari egiten dion ekarpena 11.543 eurokoa da, eta honako honen arabera zehazten da:

a) Aurreko ekitaldiko EIOZaren eta zirkulazio zergaren diru-bilketaren ehuneko lau, 2.543 euroko zenbatekoarekin.

b) Kontzejuaren biztanleriarengatiko zenbateko finko bat, 9.000 eurokoa.

- Transferentzia arrunten ondoriozko diru-sarreraren barruan, zenbait establezimenduk kontzejuaren izenean jaietarako —funtsean, herri-bazkarietarako— bizilagunei egiten dizkieten kobrantzak erregistratzen dira. Ez dago jasota haien justifikaziorik —gutxienez ere halakorik ordaindu duten pertsonen zerrenda bat—: soilik agertzen da zenbatekoa Kontzejuaren kutxan entregatu dela. 2015ean, 2.653 euro izan dira.

- Herri-lurrengatiko diru-sarreretan, 2.524 euro egotzi dira, 2013ko eta 2014ko diru-sarreei dagozkienak eta bere garaian igorri ez zirenak.

- Zuhaitzen salmentarako enkanteetako bat eman gabe geratu zen hasieran. Ez dago ingurubar hori jasota uzten duen aktarik, ez eta enpresa bati geroztik zuzeneko esleipena egiteko jarraitutako prozedurari buruzko dokumentaziorik ere. Zuzeneko esleipen horren zenbatekoa bat dator enkantean aurreikusitako zenbatekoarekin: 8.100 euro.

- Kontzejuak bere areto bat alokatzen dio partikular bati musika-eskolak emateko. Errentamendu horren kontraprestazio gisa, kontzejuak elektrizitate-, ur- eta berokuntza-horniduren kontsumoaren zenbatespen bat egiten du; 2015ean, zenbatespen hori hilean 180 eurokoa izan da, hamar hilabetez. Zenbateko horiek kobratu egin ditu Kontzejuak.

DIRUZAINZA

- Kontzejuak erabili ohi duen kontu korronteak banakako xedapeneko sinaduren bitartez funtzionatzen du.

- Ordainketa ia guztiak banku-transferentziaren bitartez egiten dira.

- Ikusi dugu finantza-entitate batean beste kontu korronte bat badagoela, operatibo ez dagoena: 100 euroko saldoa du. Haren mugimendu bakarrak mantentze-komisioei dagokiena da, eta 45 eurokoak izan dira 2015ean. Halaber, Kontzejua Arantzadiko Kontzejuarekin beste kontu baten kotitularra da. Azken kontzeju hori da hura administratu eta erregistratzen duena.

- Kontzejuak eskudiruko kutxa bat kudeatzen du diru-sarrerarako eta gastuetarako. Aholkulariak kudeatzen du. Diru-sarrerak, funtsean, liburuaren salmentatik eta jaietatik heldu direnak dira, eta ez dute beti dokumentu-euskarririk edo izakinen kontrolirik. Gastuak, berriz, zenbateko txikiko ordainketak izaten dira. Ez dago araurik haien funtzionamendua erregulatzen duenik. Bidezkoak diren kontaketa-aktak ez dira egiten.

IV.4. GOMENDIOAK

Egindako lanetik, honako gomendio hauek nabarmendu nahi ditugu

- *Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak legedi indardunak aipatzen duen legezko epean onestea; betiere, aplikatzen diren ekitaldiaren hasiera baino lehen, noski.*

- *Kontzejuaren aurrekontuaren eta kontu orokorraren dokumentazioaren barruan sartzea aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetze-mailari buruzko informazio xehea.*

- *Fakturen erregistro elektronikoa ezartzea.*

- *Arautzea aholkulari juridikoa Kontzejuaren Batzarraren bileretan egotea, eta bilerei buruzko behar diren aktak egitea.*

- *Kontzejuaren ondasun guztiak behar bezala balioetsita edukiko dituen inbentario bat egitea, ibilgetuaren saldoa bermatuta.*

- *Urteko aurrekontuari egoztea ekitaldian sortutako gastuak eta diru-sarrerak.*

- *Kontzejuko langileen beharrianak eta betekizunak aztertzea eta urtero Kontzejuaren Batzarrak onetsi beharreko plantilla organiko batera eramatea.*

- *Langileak publizitate, lehia, berdintasun eta merezimendu printzipioen arabera hautatzea.*

- *Diru-laguntzak deialdi publiko bidez eman behar dira, eta arautu behar dira haien onuradunen betekizunak, baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa jasoko duen ordenantza beten bitartez.*

- *Behar diren kontratazio espedienteak izapidetzea legez ezarritako mugak gainditzen diren kasuetan. Gainerakoetarako, gomendagarria da eskaintzak eskatzea enpresa edo/eta profesional desberdinei; halaber, inbertsioa edo egin beharreko lanak proiektu tekniko batean oinarrituta daudenean, egin beharrek lanei buruzko eskaintza orokorrak eskatzea. Azken kasu horietan, eskaera hori agiri bidez jasota uztea.*

- *Argiteria publikoaren mantentze-kontratua lizitatzea, betiere Kontzejuaren egungo errealitateari eta beharriari egokitua.*

- *Bizilagunek jaietarako egiten dituzten ekarpenak kasuko jaso-agiri edo zerrenden bidez kontrolatu beharko lirakeke, eta onena izanzen litzateke Kontzejuaren kontu korrontean zuzenean sartzea.*

- *Kontu korronteko funtsen erabilera oro sinadura mankomunatuaren bitartez egin beharra dago.*

- *Operatibo ez dagoen kontu korrontea ezeztatzea.*

- *Eskudiruaren kutxaren funtzionamendua erregulatzea, bai eta haien sarrerak eta irteerak justifikatzeko euskarria ere, eta maiztasun jakin batez, eta gutxienez ere ekitaldiaren amaieran, kontaketa-akta bat egitea, kontzejukide-idazkariak eta aholkulariak elkarrekin sinatua.*

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga